

NOTA DE PRENSA

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 3,9 milioi eurorekin finantzatuko du udal-titularitateko 0-3 urte arteko 49 haur-eskolen jarduera

Horretarako, zentro horien 45 toki-erakundeekin lankidetza-hitzarmenak izenpetuko ditu

Miércoles, 15 de mayo de 2013

Nafarroako Gobernuak .932.863 euro erabiliko du lehen zikloko (0-3 urte) 49 udal-eskola finantzatzen laguntzeko 2012-2013 ikasturtean zehar, Gobernuak onartutako akordio banatan jasotzen denez.

Horretarako, Foru Gobernuak zentro horien 45 toki-erakundeekin lankidetza-hitzarmenak izenpetuko ditu: Allo, Andosilla, Antsoain, Arbizu/Lakunza, Arguedas, Azagra, Barañain, Baztan, Berriozar, Betelu, Buñuel, Burlata, Cabanillas, Cadreita, Caparroso, Cascante, Castejon, Oltza Zendea, Zizur Zendea, Cortes, Egues, Lizarra, Esteribar, Funes, Huarte (2), Itza, Lerin, Los Arcos, Zaraitzuko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, eta Nabaskoze, Martzilla, Mendabia, Mendigorria, Milagro, Murchante, Noain, Oteitza, Iruña (4), Azkoien, Gares, Ribaforada, Doneztebe, Tutera, Viana, Villafranca eta Zizur Nagusia.

Gaur egun Foru Komunitatean udal-titularitateko 95 haur-zentro daude. Haietatik, 66k izaera hezitzalea erakutsi dute eta Nafarroako Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen arauan ezarritako baldintzak betetzen dituztela, finantzaketa hori izateko aurretiazko eskakizuna dena. 49k, hitzarmen horiek izenpetu zituztenek, epearen barnean egin zuten, 2012ko abuztuaren 31 baino lehen, eta beste 17k ondoren egin dute, ikasturtea hasi ondoren. Azken horiek, gainerako 29 zentroen antzera, eta espedienteak oraindik amaitu gabe dituztenak, Hezkuntza Departamentua laster prestatuko dituen diru-laguntzen deialdi baten zain egon beharko dute.

Gogoratu beharra dago Nafarroako Gobernuak, hitzarmen horien bitartez, udal-titularitateko 0-3 urte arteko zentroen finantzaketa laguntza ematen duela, udalekin eta senideekin beraiekin batera.

Konprometitutako 3,9 milioi euro horietatik, Alloko Udalak 55.831,22 euro jasoko du; Andosillak, 79.635,54 euro; Antsoainek, 134.579,71 euro; Arbizu/Lakuntzak, 59.332,83 euro; Arguedasek, 64.156,14 euro; Azagrak, 44.735,46 euro; Barañainek, 54.076,91 euro; Baztanek, 115.548,72 euro; Berriozar-ek, 148.193,52 euro; Beteluk, 41.843,13 euro; Buñuelek, 53.138,82 euro; Burlatak, 132.411,90 euro; Cabanillasek, 49.946,28 euro; Cadreitak, 63.732,14 euro; Caparrosok, 64.585,56 euro; Cascantek, 102.777,36 euro; Castejonek, 60.043,34 euro; Zizur Zendea, 67.387,36 euro; Oltza Zendea, 81.748,35 euro eta Cortesek, 58.573,34 euro.

Gainera, Eguesko Udalak 155.297 euro jasoko du: Lizarra, 91.299,04 euro; Esteribar-ek, 34.419,22 euro; Funesek, 72.989,83 euro; Huartek, 152.809,45 euro; Itzak, 62.977,64 euro; Lerinek, 52.722,02 euro; Los Arcosek, 54.246,52 euro; Zaritzuko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Nabaskozek, 41.334,33 euro; Martzillak, 67.325,54 euro; Mendabiak, 61.416,52 euro; Mendigorriak, 33.997,86 euro; Milagrok, 101.646,52 euro; Murchantek, 70.548,42 euro; Noainek, 112.890,82 euro; Oteitzak, 38.111,93 euro; Iruñeak, 501.243,64 euro; Azkoienek, 85.954,80 euro; Garesek, 115.378,34 euro; Ribaforadak, 78.687,28 euro; Doneztebek, 45.294,82 euro; Tuterak, 128.399,91 euro; Vianak, 53.200,32 euro; Villafrancak, 82.140,55 euro eta Zizur Nagusiak, 106.253,74 euro.